

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES ZIRKUITUA



BILBAO – GASTEIZ 2019

ARAUDIA

Antolatzailea: Trail 52 Sport Mendi Kluba

INDIZEA

1. artikulua: **ANTOLAKUNTZA**
2. artikulua: **BASQUE ULTRA TRAIL SERIES ZIRKUITUA**
3. artikulua: **ERDI-AUTOSUFIZIENTZIA**
4. artikulua: **IRAUNKORTASUNA ETA INGURUMENA ERRESPETATZEA**
5. artikulua: **BALIZAK**
6. artikulua: **IZEN-EMATEAK**
 - 6.1 artikulua: **Bilbo-Gasteiz probako izen-emateen prezioa**
 - 6.2 artikulua: **Izen-ematea baliogabetzeko aseguruak**
 - 6.3 artikulua: **Izen-ematea baliogabetzea**
7. artikulua: **ITXAROTE-ZERRENDA**
8. artikulua: **MEDIKU-ZIURTAGIRIA**
9. artikulua: **KATEGORIAK**
 - 9.1. artikulua: **Taldekako parte-hartzea**
10. artikulua: **SAILKAPENAK**
 - 10.1 artikulua: **Lasterketen sailkapenak**
 - 10.2 artikulua: **Zirkuituaren sailkapenak**
11. artikulua: **SARIAK**
 - 11.1 artikulua: **Zirkuituko proba puntuagarri bakoitzeko sariak**
 - 11.2. artikulua: **BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituko sariak**
12. artikulua: **ERREKLAMAZIOAK**
13. artikulua: **IBILBIDE-LIBURUA/ROAD BOOK**
14. artikulua: **TARTEKO KONTROL-GUNEAK**
15. artikulua: **ANOA-GUNEAK ETA BIZI-OINARRIAK**
 - 15.1 artikulua: **Anoa-guneak**
 - 15.2 artikulua: **Bizi-oinarriak**
 - 15.3 artikulua: **Anoa-guneak eta Bizi-oinarriak**
- 16 artikulua: **PARTAIDEEN LASTERKETARAKO POLTSA ETA MOTXILA**
 - 16.1. artikulua: **Bizi-oinarrirako poltza**
 - 16.2 artikulua: **Helmugako motxila**
17. artikulua: **SEGURTASUNA ETA OSASUN-LAGUNTZA**
18. artikulua: **DOPINA**
19. artikulua: **GEO-LOKALIZAZIOA**
20. artikulua: **ORDUTEGI-MUGAK**
21. artikulua: **PROBA BERTAN BEHERA UZTEA ETA IRTEERA/HELMUGARA ITZULTZEA**
 - 21.1. artikulua: **Lasterketa derrigorrez bertan behera uztea**
 - 21.2 artikulua: **Irteera/Helmugara itzultzea**
22. artikulua: **DORTSALAK**
23. artikulua: **DERRIGORREZKO MATERIALA**
24. artikulua: **IRTEERAKO KONTROLA**
25. artikulua: **ZIGORRAK**
26. artikulua: **BIDELAGUN**
27. artikulua: **ERANTZUKIZUNAK**
28. artikulua: **ALDAKETAK**
29. artikulua: **DATUEN TRATAMENDUAREN ARDURA ETA XEDEA**
 - 29.1 artikulua: **Partaideen eskubideak**
 - 29.2 artikulua: **Datuak lagatzea**
 - 29.3 artikulua: **Datuen kalitatea**
 - 29.4 artikulua: **Kirol-taldeek emandako datuak**
30. artikulua: **IRUDI-ESKUBIDEAK**

ARAUDIA

1. artikulua: ANTOLAKUNTZA

Trail 52 Sport Mendi Klubak (Kirol Elkarteen Erregistroan CD0006383 zenbakia izanik, otsailaren 14ko 29/1989 dekretuko baldintzak betez eta G95840914 IFK zenbakiarekin) antolatzen du BASQUE ULTRA TRAIL SERIES zirkuitua, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuaren, Nafarroako Foru Erkidegoko Gobernuaren, Bizkaia, Gipuzkoa eta Arabako Foru Aldundien eta Bilbo, Vitoria/Gasteiz, Iruñea/Pamplona eta Donostia/San Sebastián hiriburuetakoko Udalen babesarekin.

2. artikulua: BASQUE ULTRA TRAIL SERIES ZIRKUITUA

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES ultra traileko (distantzia luzeko/ultra-fondoko mendiko lasterketak) lau probaz osatutako zirkuitu bat da. Lasterketa horiek Bilbo, Vitoria/Gasteiz, Iruñea/Pamplona eta Donostia/San Sebastián hiriak lotuko dituzte 2017ko data jakinetan:

<u>Data</u>	<u>Proba</u>	<u>Distantzia</u>	<u>Desnibela</u>
2019 Ots 24/26.....	Bilbo-Gasteiz.....	110km.....	11.200m. (D+5.900m/D-5.300m)
2020 Mai 1/3.....	Gasteiz-Iruñea.....	130 km.....	12.700m. (D+6.300m/D-6.400m)
2021 Uzt 23/25.....	Iruñea-Donostia ...	120 km	14.400m. (D+7.000m/D-7.400m)
2022 Urri 7/9	Donostia-Bilbo.....	140 km	16.600m. (D+8.300m/D-8.300m)

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuitua mendizaletasunaren berezko balioak –errespetua, elkartasuna eta jarduera fisikoaren bidez natura ezagutzea– sustatzeko eta Euskal Herriko geografiak paisaia aldetik duen aberastasuna zabaltzeko asmo eta borondatearekin sortu da.

Mendiko proba hauetan mendiak, basoak, zelaiak, harkaiztiak eta, oro har, ingurune malkartsuak zeharkatzen dira, eta horietan eguraldi-baldintzak txarrak izan daitezke. Hori dela eta, proba hauek egiteko beharrezkoa da mendian trebatuta egotea, gorputza eta burua ondo prestatuta izatea eta autonomia pertsonalerako gaitasun handia edukitzea.

Partaideek antolakuntzak emandako argibideei jarraitu beharko diete uneoro. Arau hau betetzen ez duenak zigorra jaso dezake, eta probatik kanporatua ere gera daiteke (ikusi 25. artikulua: Zigorrak).

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituko lau probetako batean parte-hartzeak berekin dakar araudi hau eta antolakuntzak bere web gunean (www.basqueultratrail.com) argitaratutako lasterketaren etika onartzea.

Lasterketa bakoitzeko partaide guztiek deskargu gutun/orri bat sinatu beharko dute dortsala jasotzeko unean, eta, horren bidez, konpromisoa hartuko dute Zirkuituaren balio etikoak betetzeko eta salbuetsi egingo dute antolakuntza balio horien eta/edo legearen aurkako jokabideen aurrean.

3 artikulua: ERDI-AUTOSUFIZIENTZIA

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuitua osatzen duten proben ezaugarri nagusia partaideen erdi-autosufizientzia da. Hau da, partaide bakoitzak anoa postuen artean bere biziraupena antolatzeko duen gaitasuna, elikaduraren, jantzien nahiz segurtasunaren aldetik. Horrenbestez, korrikalariek gai izan behar dute beren kabuz eta inoren laguntzarik gabe lehiaketaren eta proba egiten den ingurunearen ondorioz sor daitezkeen egoerei aurre egiteko (neke fisikoa eta/edo mentala, gaixotasuna, zauriak, eguraldi baldintzak txarrak, etab.).

Horretarako, antolakuntzak derrigorrez eraman beharreko materiala ezarri du, eta lehiakideek lasterketa osoan eraman beharko dute material hori (23. artikulua: Derrigorrezko materiala).

Dorsalak ematerakoan eskatu egingo antolakuntzak du material hori eta irteeren aurreko parke itxian partaideek gainean daramatela egiaztatuko du. Horrez gain, lasterketako edozein momentutan kontrol-guneetako arduradunek material hori egiaztatzea eska dezakete. Partaideek derrigorrez erakutsi beharko dute kontrolean eskatutako materiala. Uko egiten badiote, kanporatuak izango dira (25. artikulua: Zigorrak).

Partaide bakoitzaren ardura da material egokia izatea, derrigorrezkoaz gain, mendiaren berezko baldintzei aurre egin ahal izateko.

Erdi-autosufizientziaren printzipioak esan nahi du debekatuta dagoela izena emanda ez dagoen inor lehiakidearen ondoan joatea edo ondoan joaten uztea lasterketa osoan edo zatiren batean (Bidelagun izan ezik, bizi oinarritik), anoa-guneetan baimenduta eta behar bezala adierazita dauden eremuetan izan ezik (anoa-gune horien aurreko eta ondorengo 200 metroak). Arau hori ez betetzeak zigorra ekarriko du, besteak beste kanporatua izatea (25. artikulua: Zigorrak).

4. artikulua: IRAUNKORTASUNA ETA INGURUMENA ERRESPETATZEA

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituaren oinarri eta balio nagusietako bat iraunkortasuna eta ingurumenarekiko errespetua da.

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituko probak zati askotan Parke Naturaletatik eta, oro har, gunee babestuetatik igarotzen dira, eta, beraz, lasterketan esku hartzen duten alde guztiek (antolatzaile, boluntario, ikusle eta partaideek) modu berezian zaindu eta errespetatu behar dituzte ingurune horiek.

Antolakuntzak, bere aldetik, lasterketak natura-ingurunean sor dezakeen inpaktua ahalik eta txikiena izan dadin zainduko du eta zaintzeko betekizuna ezarriko du, eta, horrez gain, konpromiso hauek hartzen ditu:

- Material birziklatuak, berrerabilgarriak edo biodegradagarriak erabiltzekoa.
- Ibilbideetako baliza eta marka guztiak kentzekoa eta, kasu guztietan, proben ondorioz sortutako hondakin guztiak jaso eta deuseztatzea.

Horrez gain, antolakuntzak arreta berezia jarriko du ingurumenaren kontserbazioarekin lotura duten Araudiko alderdiak betetzeko:

- Anoa-guneetan ez da edalontzirik izango, ahal den neurrian, zaborrik ez sortzeko. Partaide bakoitzak ontzi birziklagarri bat eraman beharko du (edalontzia, bidoia edo bestelakoa) 30 cl-ko gutxieneko edukierarekin. Salbuespen modura, probetako lehen anoa-gunean erabili ahal izango dira, pilaketarik ez sortzeko.
- **Partaide bakoitzak irakurtzeko moduan eta errotulagailu ezabaezinarekin markatu beharko du bere dorsala-zenbakia barratxo, gel, janari-poltsa eta abarretan, bai irteerako motxilan daramatzanetan bai dagokion bizi-oinarrira eramateko poltsan uzten dituenetan.** Dorsala hartzeko unean egingo den material-kontrolean nahiz irteerako parke itxira sartzerakoan egiaztatuko da markaketa hori. Horrez gain, antolakuntzak iragarri gabeko zorizko material kontrolak burutu ditzake ibilbidean zehar. Kontrol hauek pasatzeari uko egiten dion korrikalari oro deskalifikatua izango da.
- Antolakuntzak korrikalariaren poltsan edalontzi tolesgarri bat sartuko du anoa-guneetan erabiltzeko, baita poltsa-sare birziklagarri bat ere, lasterkariak

lasterketan sortzen duen zaborra gordetzeko (ondoren, anoa-guneetan egokitutako edukiontzietan bota beharko du zabor hori). Dorsalarekin batera jasoko du partaide bakoitzak korrikalariaren poltsa.

- Derrigorrezkoa da balizatutako bideari jarraitzea, mozten saiatu gabe eta lasterbiderik hartu gabe, batez ere pista edo bideetatik kanpo doazen tarteen eta babestutako natura-guneetan; izan ere, horrek lurzoruaren higadura atzerazina eta berehalako degradazioa sor dezake.

Arau horietako bat ez betetzeak zigorrak ekarriko ditu, besteak beste kanporatua izatea (ikusi 25. artikulua: Zigorrak).

5. artikulua: BALIZAK

Proba bakoitzeko ibilbidea lasterketa egunerako bereziki seinaleztatuta egongo da eta derrigorrezkoa izango da proba balizatutako ibilbidetik burutzea. Arau hau haustek zigorra dakar, deskalifikazioa barne (25.Artikulua: Zigorrak)

Proba behar bezala seinaleztatuta egongo da zinten, seinale islatzaileen eta kartel adierazleen bitartez.

Hala ere, antolakuntzak ibilbidearen tracka eramatea gomendatzen die partaideei, eguraldi-baldintzak oso txarrak badira, korrikalaria oharkabe bidez nahastu bada edo balizak desagertu badira, segurtasun handiagoz jokatzeko. Probaren web gunean (www.basqueultratrail.com) dago eskura track hori.

6. artikulua: IZEN-EMATEAK

Izen-emateak Internet bidez egingo dira, probako weg guneko ofizialaren bitartez, eta kreditu/debitu txartelarekin, 2018ko urriaren 10eko 10:00etatik aurrera.

350 dorsala izango dira eskuragarri eta izen-emate orden zorrotzan banatuko dira

Antolakuntzak beste 30 dorsala izango ditu bere konpromiso ezberdinentzako.

Korrikalari bakoitzari egokitutako dorsala pertsonala eta aldaezina izango da.

Izen-emate epea 2019ko otsailaren 1eko 23:59etan bukatuko da.

Izen-emateak honako hauek bermatzen ditu:

- Lasterketan parte hartzeko eskubidea.
- Istripu-asegurua.
- Erantzukizun zibileko aseguruua.
- Osasun-laguntza lasterketan.
- Masaje-zerbitzua lasterketak dirauen bitartean eta lasterketaren ondoren.
- Probaren jantzi oroigarria.
- Anoa-guneetako janaria eta edaria.
- Janari- eta edari-zerbitzua, dutxak eta atsedena-gunea bizi-oinarrietan eta helmugan.
- Doako garraio-zerbitzua parte hartzaileentzat: ibilbide guztian zehar (lasterketa utziz gero) eta helmuga-irteera eta helmuga-dutxa-helmuga tarteen.
- Pasta party.
- Bizi-oinarrira materiala garraiatzeko poltsa/zakua.
- Lasterketan zehar zaborra gordetzeko poltsa-sarea.
- Lasterketako eskuliburua/Road Book (lasterketei buruzko informazio guztia jasotzen

- duen agiria).
- Txip bidezko kronometraje-zerbitzua.
- Segurtasuneko GPS-baliza.
- Edalontzi tolesgarria eta berau eramateko pintza/mosketoia.

Horiez gain, antolakuntzak ezarritako ordutegiaren barruan lasterketa osatzen duten korrikalariak finisher oparia jasoko dute helmugara iristeko unean.

Izen-ematea ontzat emateko, ezinbestekoa da araudia onartzea eta, orobat, lehiaketan edo ondoren inolako istripurik edo gorputz-kalterik izanez gero, antolakuntza horien erantzukizun orotatik salbuestea. Nolanahi ere, antolakuntzak bere esku dagoena egingo du horrelakorik ez gertatzeko. Adierazpen hori dortsala jasotzerakoan sinatuko dute partaideek.

6.1 artikulua: Bilbo-Gasteiz probako izen-emateen prezioa

Izen-emate tartea	Prezioa (€)
2018ko urriaren 8tik 2018ko azaroaren 11ra	85,00
2018ko azaroaren 12tik 2018ko abenduaren 23ra	100,00
2018ko abenduaren 24tik 2019ko otsailaren 1era	115,00

6.3 artikulua: Izen-ematea baliogabetzeko aseguru

Partaideek aukera izango dute, izena ematerako garaian, baliogabetzeko aseguru bat izenpetzeko; horretarako, 10 € ordaindu beharko dute. Kopuru hori izen-ematearen kostuari gehituko zaio.

Aseguru horrek aukera ematen du izena ematerakoan ordaindutako zenbatekoa berreskuratzeko, baliogabetzeko aseguruagatik beragatik ordaindutako 10 euroak izan ezik. Itzultzeko berme hori lasterketa baino 4 asteetara arte izango da baliagarri. Hortik aurrera, EZ da onartuko izen-ematearen dirua itzultzeko inolako eskabiderik, arrazoia edozein dela ere.

6.4 artikulua: Izen-ematea baliogabetzea

Izen-ematearen baliogabetzea honako kasu hauetan baino ez da onartuko:

- Izena emandako pertsonaren istripua, lesioa, gaixotasun larria edo heriotza.
- Izena emandako pertsonaren ezkontidea, bikotea edo lehen graduko aurreko edo ondorengo senidea gaixotasun larri baten ondorioz ospitaleratzea edo hiltzea.

Izena emandako pertsonaren istripu, lesio edo gaixotasun larri baten kasuan, beharrezkoa da proba ez egitea aholkatzen duen mediku-ziurtagiria bidaltzea.

Baliogabetzeko beste edozein arrazoi dagokion ziurtagiriaren bidez arrazoitu beharko da, eta ziurtagiri hori antolakuntzari bidali beharko zaio posta arruntez (Iparragirre kalea, 66 - behea, 48012 - BILBO) edo e-mail bidez (inskripzioak@basqueultratrail.com). Telefonoz edo faxez bidalitako baliogabetze-eskaerak ez dira onartuko.

Izena emandako pertsona batek bere izen-ematea baliogabetu nahi badu baina ez badu

baliogabetze-asegurua ordaindu edo kontratatu badu baina ez baditu 6.3 artikuluan eskatutako baldintzak betetzen, itzuli beharreko kopurua itzulketa-eskabidea egin duen dataren proportzionala izango da:

Eskabidea hartutako data Itzuli beharrekoa (ordaindutako zenbatekoaren %)

Izena emateko lehen epean..... %50
Izena emateko bigarren epean %40
Izena emateko hirugarren epean..... %30

Izena emateko epea amaitu ondoren jasotako baliogabetze-eskabideak ez dira onartuko.

Izen-emateak baliogabetzeko eskabide guztiak proba amaitu eta hurrengo bi hilabeteetan aztertu eta ebatziko dira.

Itzulketak bankuko transferentzia bidez edo kreditu-txartelean eginiko ordainketaren bidez bideratuko dira.

7. artikulua: ITXAROTE-ZERRENDA

Lasterketako izen-emateen kupoa betetzen bada, itxarote-zerrenda bat sortuko da eta hori erabiliko da izena emateko epea amaitzen den egunera arte gerta daitezkeen bajak betetzeko. Data horretatik aurrera ez da itxarote-zerrendako inoren izen-ematerik egingo.

Itxarote-zerrendako izen-emateak egiteko, izena emandako ordena zehatzari jarraituko zaio.

8. artikulua: MEDIKU-ZIURTAGIRIA

Izen-ematea egin ahal izateko partaideak mediku-ziurtagiria bidali beharko dio antolakuntzari posta arruntez edo e-mail bidez (inskripzioak@basqueultratrail.com). **Antolakuntzak, beranduenez, izena emandako TARTEA ixten den egunean eduki beharko du agiri hori.**

Partaideak ez badu ziurtagiri hori adierazitako epean bidaltzen, izen-ematea baliogabetu egingo da eta korrikalariak izen-ematearen zenbatekoa itzultzeko eskubidea galduko du.

Mediku-ziurtagiriaren data gehienez ere probaren eguna baino urtebete lehenagokoa izango da, eta, beraz, urte batetik gorako antzintasuna duten ziurtagiriak ez dira onartuko.

Mediku-ziurtagiriak mediku batek sinatua eta zigilatua egon behar du, eta bertan adieraziko ditu medikuaren izen-abizenak eta elkargokide zenbakia. Hori aurkeztu ezean, izen-ematea automatikoki baliogabeturik geratuko da, eta ez da izen-emate kostuaren diru-itzulketarik egingo.

Antolakuntzak, ziurtagiriaren eredu bat deskargatzeko aukera emango du BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituaren web gune ofizialean (<http://www.basqueultratrail.com/wp-content/uploads/2017/03/certificado-médico-eusk.pdf>).

9. artikulua: KATEGORIAK

- Gizonezkoen orokorra
- Emakumezkoen orokorra
- Gizonezko beteranoak (45-55 urte)
- Emakumezko beteranoak (45-55 urte)

- Gizonezkoen master kategoria (55 urtetik gorakoak)
- Emakumezkoen master kategoria (55 urtetik gorakoak)

Parte hartzeko nahitaezkoa da 18 urtetik gora izatea (probako eguna baino lehen beteta).

10. artikulua: SAILKAPENAK

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituaren antolakuntzak hainbat sailkapen finkatuko ditu, bai lasterketa bakoitzerako bai Zirkuiturako, eta horien arabera erabakiko da zer partaidek eskuratuko dituzten sariak eta opariak.

10.1 artikulua: Lasterketen sailkapenak

Proba bakoitzean, kategoriaren arabera sailkapen bat izango da, sailkapen orokorraz gain.

Kontrol-guneetako denborak unean bertan egongo dira partaideen/laguntzaileen eskura, horretarako aukera dagoen neurrian, BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituaren web gunean (www.basqueultraultra.com). Era berean, behin betiko emaitzak proba bakoitza bukatu eta hurrengo egunean argitaratuko dira web gunean bertan.

10.2 artikulua: Zirkuituaren sailkapenak

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituak sailkapen nagusi orokor bat izango du (gizonezkoena eta emakumezkoena) eta horren arabera erabakiko da nor diren Zirkuituko txapeldunak eta sarien irabazleak. Lasterketa bakoitzean emandako puntuazioaren arabera zehaztuko da sailkapen hori.

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuitua osatzen duten lau probetan hainbat puntu banatuko zaizkie partaideei, haien sailkapenaren arabera.

Lehen hiru probetako irabazleak 100 puntu eskuratuko ditu, eta laugarren lasterketaren irabazleak, 150 puntu.

- Bilbo – Gasteiz 100 puntu
- Gasteiz – Iruñea..... 100 puntu
- Iruñea – Donostia..... 100 puntu
- Donostia – Bilbo 150 puntu

Lasterketa bakoitzeko 10 lehenen puntuazioa hurrengoia izango da:

	<u>Bilbao-Gasteiz</u>	<u>Gasteiz-Iruñea</u>	<u>Iruñea-Donostia</u>	<u>Donostia-Bilbao</u>
1.....	100 puntu	100 puntu	100 puntu	150 puntu
2.....	90 puntu	90 puntu	90 puntu	130 puntu
3.....	80 puntu	80 puntu	80 puntu	110 puntu
4.....	75 puntu	75 puntu	75 puntu	100 puntu
5.....	70 puntu	70 puntu	70 puntu	90 puntu
6.....	65 puntu	65 puntu	65 puntu	85 puntu
7.....	60 puntu	60 puntu	60 puntu	80 puntu
8.....	55 puntu	55 puntu	55 puntu	75 puntu
9.....	50 puntu	50 puntu	50 puntu	70 puntu
10.....	45 puntu	45 puntu	45 puntu	65 puntu

Hamargarren sailkatutik aurrera puntuazioak puntuz-puntu behera egingo du postuaren arabera, puntu batera heldu arte. Hortik aurrera finisher guztiek puntu bat lortuko dute.

Zirkuituaren azken sailkapena partaide bakoitzaren hiru lasterketa onenen puntuen batuketaren arabera izango da. Horrenbestez, lau probetan parte

hartu duen korrikalari baten puntu kontaketa egiteko bere emaitzarik txarrena kenduko zaio.kasgehien batzen duenak, horrek jantziko du BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituko txapela.

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituko irabazlea lau probak eta gero puntu gehiago lortu duen partaidea izango da.

Diru-sariak eskuratu ahal izateko, ezinbestekoa da BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituko lau probetatik gutxienez bitan parte hartzea. Bi horietako bat nahitaez laugarren proba puntuagarria izango da (Donostia – Bilbo).

11. artikulua: SARIAK

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituaren antolakuntzak zenbait sari eta opari izango ditu Zirkuitua osatzen duten lau probetako bakoitza bukatzen duten partaideentzat, baita Zirkuituko lasterketa guztiak osatzen dituztenentzat ere.

11.1 artikulua: Zirkuituko proba puntuagarri bakoitzeko sariak

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituko lau probetako bakoitza antolakuntzak ezarri duen denbora-mugaren barruan amaitzea lortzen duten guztiek web gunetik diploma deskargatu ahal izango dute, ibilbidea osatu dutela ziurtatuko duena. Diploma horretan zehaztuko dira lortutako postua, azken denbora eta kontrol-gune bakoitzeko denbora partzialak.

Horrez gain, finisher diren aldetik, opari bat ere jasoko dute helmugan txipa itzultzerakoan.

Postuaren arabera, hauek izango dira sariak:

(Gizonezkoen eta emakumezkoen kategoriak, edozein adinetan)

- 1. 1.000 € + garaikurra + txapela
- 2. 500 € + garaikurra
- 3. 250 € + garaikurra

Beteranoak (gizonezkoak eta emakumezkoak) eta Master (gizonezkoak eta emakumezkoak) kategorietako lehen hiru sailkatuek garaikurrak jasoko dituzte.

11.2. artikulua: BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituko sariak

Postuaren arabera, hauek izango dira sariak:

(Gizonezkoen eta emakumezkoen kategoriak, edozein adinetan)

- 1. 2.000 € + garaikurra + txapela
- 2. 1.000 € + garaikurra
- 3. 500 € + garaikurra
- 4. 250 €
- 5. 100 €

Gainera, lau proba puntuagarriak amaitzen dituzten partaide guztiek BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituaren finisher direla saritzeko opari bat jasoko dute.

Kategoria bakoitzean podiumeko postuetan sailkatu diren partaideek sari-banaketa ekitaldian egon beharko dute nahitaez, antolakuntzak adierazitako egun eta orduan. Web gunean (www.basqueultratrail.com) iragarriko da ekitaldi hori noiz izango den. Sari-banaketa ekitaldira bertaratzen ez den korrikalariak dagokion saria jasotzeko eskubidea galduko du.

Diru-sari guztiek indarrean den legediaren araberrako atxikipenak izango dituzte.

12. artikulua: ERREKLAMAZIOAK

Lasterketako erreklamazioak soilik idatziz aurkeztu ahal izango zaizkio antolakuntzari. Behin-behineko sailkapenak BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituaren web ofizialean (www.basqueultratrail.com) argitaratu eta hurrengo 24 orduetan egin ahal izango dira erreklamazioak.

Ondoren, gehienez ere hilabeteko epean aztertu, erabaki eta emango da ebazpenaren berri, lasterketa amaitzen den egunetik zenbatzen hasita.

13. artikulua: IBILBIDE-LIBURUA/ROAD BOOK

Proba bakoitzean izena emateko epea ixten denean, partaide bakoitzak Ibilbide-liburua jasoko du posta arruntez edo e-mailez; era berean, Zirkuituaren web gune ofizialean (www.basqueultratrail.com) ere deskargatu ahal izango du liburu hori.

Gida horretan ibilbidearen planoak eta proben profilak zehazten dira, baita bestelako informazio praktikoa ere: tarteko kontrol-guneetako ordutegi-mugak, anoa-guneak, osasun-zerbitzuen kokagunea, zaintza-zerbitzuen postuak, laguntzaileentzako sarbideak eta, oro har, lasterketei buruzko funtsezko informazio guztia.

14. artikulua: TARTEKO KONTROL-GUNEAK

Antolakuntzak tarteko zenbait kontrol-gune ezarriko ditu ibilbidean, partaideak hortik igarotzen direla ziurtatzeko; batetik, haien segurtasuna bermatzeko eta, bestetik, proban jarraitzen dutela egiaztatzeko.

Partaideek derrigorrez igaro beharko dute tarteko kontrol-gune horietatik eta ziurtatu egin beharko dute igaro direla antolakuntzak emandako txipa kontrol horretan pasata.

Tarteko kontrol-guneak erraz ikusteko moduan egongo dira eta kontrol guztietatik pasatzea derrigorrezkoa izango da. Gune horietako batetik pasatzen ez diren partaideak kanporatuak izango dira (25. artikulua: Zigorrak).

Adierazitako kontrol-guneez gain, antolakuntzak beste zenbait kontrol "ibiltari" ere egin ahal izango ditu ibilbidean. Antolakuntzak ez du horien kokapenaren berri emango eta kontrol "ibiltari" horietatik igarotzea ere derrigorrezkoa da.

15. artikulua: ANOA-GUNEAK ETA BIZI-OINARRIAK

15.1 artikulua: Anoa-guneak

Lasterketa bakoitzean hainbat anoa-gune izango dira ibilbidean partaideen eskura, jateko, edateko eta janariz nahiz edariz hornitzeko.

Irteera bakoitzaren aurreko eremu itxian, partaideek anoa-gune likido bat izango dute edatekoa hartzeko.

Anoa-guneetan ez da edalontzirik izango. Ingurumena errespetatzea eta iraunkortasuna bermatzea da Zirkuituaren oinarrizko printzipioetako bat, eta hori betetzeko eta, ahal den neurrian, zaborrik ez sortzeko, partaide bakoitzak 25 cl-ko gutxieneko edukiera izango duen edalontzi birziklagarri bat eraman beharko du (basoa, bidoia edo bestelako ontzi bat).

Partaideek dortsalarekin batera jasoko duten korrikalariaren poltsan antolakuntzak emandako edalontzi bat izango da.

Partaide bakoitzaren ardura da, anoa-gune bakoitzetik abiatzean, hurrengo anoa-guneraino bere kabuz iristeko behar adina edari eta janari izatea.

Arau orokor moduan, lasterketako partaideek baino ezingo dute sartu anoa-guneetara. Leku itxietan (kiroldegi, frontoi) egiten diren anoa-guneetan laguntzaile batek sartu ahal izango du, antolakuntzak emandako akreditazioarekin (Korrikalariaren txartela) behar bezala identifikatuta. Laguntzaileak ezingo du antolakuntzak anoa-gunean jarritako materialik, janaririk edota edatekorik hartu eta erabili, eta laguntzen ari den korrikalariak anoa-gunea uzten duenean utzi beharko du berak ere leku hori.

Erdi-autosufizientziaren filosofia da BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuitua osatzen duten lasterketen oinarrietako bat, eta, beraz, oinarri hori betetze aldera, **ez laguntzaileek ez antolakuntzatik kanpoko beste inork ezin die jatekorik eta edatekorik nahiz materialik eman partaideei, ez anoa-guneetan bertan ez horietatik kanpo.** Arau hori ez betetzeak zigorra izango du (25. artikulua: Zigorrak).

Partaide guztiek ondo ikusteko moduan eraman beharko dute dortsala anoa-guneen sarreran.

Partaideek derrigorrez igaro behar dute anoa-guneetatik, nahiz eta horietan geratzeko asmorik ez izan.

Lau anoa-gune mota daude:

- **Likidoa:** ura, freskagarriak eta edari isotonikoak.
- **Oinarrizkoa:** anoa-gune likidoetan dagoenaz gain, frutak (laranja, platanoa, sagarra, sandia, meloia, tomatea) eta fruitu lehorrak.
- **Arrunta:** Oinarrizko anoa-guneetan dagoenaz gain, gazta, irasagarra, hestebeteak, txokolatea, pastak, salda eta kafea.
- **Osoa:** anoa-gune arruntetan eskura dagoenaz gain, arroza, makarroiak eta patata-tortilla.

Salbuespen modura, eta partaideen pilaketa nabarmena bada, proba bakoitzeko lehen anoa-guneetan erabili eta botatzeko edalontziak banatuko dira. Edalontzi horiek soilik anoa-gunerako egokitutako eremuan erabili ahal izango dira.

Partaide bakoitzari poltsa txiki bat emango zaio dortsalarekin batera, bere hondakinak/zaborrak jasatzeko. Poltsa hori behar bezala erabiltzen ez duten partaideek zigorra izango dute (25. artikulua: Zigorrak).

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituaren printzipioetako bat ingurumena errespetatzea eta iraunkortasuna da, eta oinarri hori betetze aldera, antolakuntzak zaborrontziak egokituko ditu anoa-gune bakoitzean, birziklatzeko dagokion kolorearekin (berdea hondakin organikoentzat, horia ontzientzat eta urdina paperarentzat), behar izanez gero erabiltzeko.

Era berean, anoa-gune bakoitzean gunearen amaiera gisa egokitutako leku bat izango da, zaborrontziz hornitua. Gune horretatik aurrera partaideek ezingo dute anoa-guneko jateko-edatekorik hartu, eta, era berean, sortutako zaborrak eta hondakinak bertan utzi beharko dituzte.

15.2 artikulua: Bizi-oinarriak

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituko lasterketa bakoitzak Bizi-oinarri bat izango du ibilbidean. Gune horretan, partaideek honako zerbitzu hauek izango dituzte eskura: anoa-gune osoa, dutxak, masaje-gunea, mediku-laguntza jasatzeko zerbitzua eta atsedenerako gunea koltxoneta/hamaka eta mantekin (gehienez ere 20 partaidek egon ahal izango dute aldi berean). Puntu horretako kontrola ixteko 10 minutu falta diren arte egon ahal izango

dute partaideek atseden-gune horretan.

Lasterketa bakoitzeko helmugan ere izango dira zerbitzu horiek: anoa-gune osoa, dutxak, masaje-gunea, mediku-laguntza jasotzeko zerbitzua eta atsedenerako gune bat koltxoneta/hamaka eta mantekin. Atseden-gune horiek ezingo dira gaua hor pasatzeko erabili. Larunbatetik igandera bitartean helmugara gauez iristen diren partaideentzat erreserbatuta daude atsedenerako eremuok, eta gehienez ere 3 orduko egonaldia egin ahal izango da haietan. Lasterketa larunbatean bukatu eta egonaldia igandera arte luzatu nahi dutenek norberaren ostatua hartu beharko dute.

15.3 artikulua: Anoa-guneak eta Bizi-oinarriak

Km. 0 (Irteera)..... Likidoa

Km. 9 (Pagasarriko zelaia) Oinarrizkoa

Km. 22 (Areta)..... Arrunta

Km. 35 (Orozko)..... Arrunta

Km. 48 (Austigarmin)..... Arrunta

Km. 64 (Murgia) BIZI-OINARRIA (Osoa + Dutzak + Atseden-gunea)

Km. 75 (Otogien)..... Arrunta

Km. 90 (Langraiz Oka) Arrunta

Km. 100 (Zaldiaran)..... Arrunta

Km. 108 (Helmuga) Osoa

16 artikulua: PARTAIDEEN LASTERKETARAKO POLTSA ETA MOTXILA

16.1. artikulua: Bizi-oinarrirako poltsa

Dortsala hartzerakoan, partaideek plastikozko poltsa/zaku bat jasoko dute, ondoren, lasterketan, bizi-oinarrirako eskura izateko. Poltsa horretan sartu ahal izango dute beharrezko jotzen duten materiala edo ekipamendua, bastoiak izan ezik, horiek ezin baitira poltsetan sartu.

Poltsa beranduen ere irteera baino ordu bete lehenago emango zaio antolakuntzari, eta hau arduratuko da Bizi-oinarrirako garraiatzeaz eta, behin proba amaituta, helmugako eremura eramateaz.

Bizi-oinarrirako iristean, partaideak derrigorrez hartu behar du poltsa, eta oinarri hori uztean, berriro ere antolakuntzaren esku utziko du.

Antolakuntzak emandako poltsak baino ez dira onartuko.

Antolakuntzak ez du egiaztatuko poltsaren barnean zer dagoen, eta, beraz, ez da erreklamaziorik onartuko. Balioko objekturik ez sartzea gomendatzen da.

Helmugako poltsak jasotzea

Partaideak helmugako eremuan jaso ahal izango du poltsa. Horrela egiten badu, nahitaez dortsala erakutsi beharko du. Beste uneren batean egiten badu, dortsala edo partaide-txartela aurkeztu beharko du, norberaren nortasun agiriarekin batera.

Helmugan, bizi-oinarrirako kontrola itxi eta handik ordu batera jaso ahal izango dute partaideek beren poltsa, lasterketa bukatu arte, hain zuzen. Sari-banaketa ekitaldia hasterako poltsa jaso ez duten partaideek antolakuntzarekin harremanetan jarri beharko dute.

Bizi-oinarrirako bertan poltsak jasotzea

Bizi-oinarrirako kontrola irekita dagoen bitartean, partaideek oinarri horretan bertan erretiratu ahal izango dute poltsa, aurrez dortsala edo korrikalari-txartela eta partaidearen

nortasun-agiria aurkeztuta.

16.2 artikulua: Helmugako motxila

Irteeran, partaideek motxila bat prestatu eta eman ahal izango diote antolakuntzari, probaren amaieran dutxatzeko eta arropak aldatzeko behar dutenarekin. Antolakuntzak helmugara eramango ditu motxila horiek, eta partaideek bertan jaso ahal izango dituzte lasterketa amaitzean.

Partaideek lasterketa bukatu arte jaso ahal izango dute beren motxila. Hortik aurrera, antolakuntzarekin jarri beharko dute harremanetan.

17. artikulua: SEGURTASUNA ETA OSASUN-LAGUNTZA

Ibilbideko hainbat puntutan eta tarteko kontrol-guneetan partaideen osasuna zaintzeko langile espezializatuak izango dira, antolakuntzak jarrita. Horrez gain, medikuak eta anbulantziak ere izango dira ibilbideko puntu estrategikoetan, beharrezkoa izanez gero esku hartzeko. Profesional horiek behar bezala identifikatuta egongo dira eta derrigorrezkoa da haien argibide eta aginduei jarraitzea.

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituko lasterketen antolakuntzak eskumena izango du proba horietakoren bat bertan behera uzteko, ibilbidea mozteko, neutralizatzeko edo gelditzeko, segurtasun arrazoiak edo bere esku ez dauden ezinbesteko arrazoiak (eguraldi baldintza txarrak...) tarteko badira.

Partaideak proba uztea erabakitzen badu, ahalik eta azkarren eman behar dio horren berri antolakuntzari. Proba utzi duen lekutik hurbilen dagoen tarteko puntuan, hain zuzen. Antolakuntzako kideek txipa kenduko diote korrikalariari, eta honek dortsala gordeko du.

Talde bat arduratuko da lasterketa ixteaz eta partaide guztiek ezarritako ordutegi-mugak betetzen dituztela egiaztatzeaz.

Lasterketaren aurreko egunetan, mapa bat emango zaie partaideei, eta hor zehaztuko dira ibilbidea, tarteko kontrol-guneak, anoa-guneak eta osasun-laguntzako postuak (Ibilbide-liburua).

Partaideek jabetu behar dute, lasterketak zer ingurunetan egiten diren eta distantziak zenbatekoak diren kontuan hartuta, osasun-laguntza baldintza normaletan baino beranduago irits daitekeela. Hori dela eta, partaide bakoitzaren segurtasuna motxilan daraman materialaren arabera izango da.

Eguraldi-baldintzak txarrak badira edo bestelako segurtasun-arrazoiak tarteko badira, antolakuntzak ahalmena izango du probak geldiarazteko, ibilbidea moldatzeko edo ordutegien mugak aldatzeko.

Eguraldi txarrak hala behartuz gero, antolakuntzak ordezeko ibilbide bat egokituko du eta behar den moduan emango die horren berri partaide guztiei. Ibilbide aldaketaren erabakia irteera eman ondoren hartuko balitz, antolakuntzak dagokion kontrol-gunean emango die horren berri partaideei.

Antolakuntzak ahalmena izango du zirkuitu hau arautzen duten oinarriak aldatzeko edo probaren bat bertan behera uzteko, ezinbesteko arrazoiak edo gorabeherak tarteko badira.

Probaren bat bertan behera uzten bada, arrazoia edozein dela ere, eta erabaki hori irteera egunerako 15 egun falta direla hartzen bada, antolakuntzak izen-emate eskubideen itzulketa partzial bat egingo du. Bertan behera uzteko erabakia zer datatan hartu den kontuan hartuta, antolakuntzak gastu finkoei eta berreskurazezinei aurre egiteko modua

izan behar du, eta horren arabera zehaztuko da itzulketa horren zenbatekoa.

Bertan behera uzteko erabakia lasterketarako 15 egun baino gutxiago falta direla hartzen bada edo irteera eman ondoren eteten bada proba, ez da inolako itzulketarik egingo.

18. artikulua: DOPINA

Erabat debekatuta dago kirolarien gaitasun fisikoa modu artifizialean handitzeko helburua duten substantziak, talde farmakologikoak eta metodoak erabiltzea. Horri dagokionez, 3/2013 Lege Organikoa, ekainaren 20koa, kirol-jardunean kirolarien osasuna babesteari eta dopinaren aurka borrokatzeari buruzkoa eta EMF/FVMren eta FEDMEren araudia eta gainerako xedapenak aplikatuko dira.

Partaide orok dopinaren aurkako kontrola pasatu beharra izan dezake, lasterketaren aurretik, dirauen bitartean edo helmugara iritsi ostean. Korrikalariak kontrola egiteari uko egiten badiu, BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituaren antolakuntzak kanporatu egingo du berehala partaide hori, eta Zirkuituko beste lasterketetan parte hartzea debekatuko dio (ikus 25. artikulua: Zigorrak). Horrez gain, dopin-kontrolan positibo eman izan balu bezala zigortua izango da, EMFren Dopinaren Aurkako Araudiarekin eta arlo horretan unean-unean aplikatzekoak diren gainerako arau-xedapenekin bat etorritz.

Dopina dela-eta zigorren bat betetzen ari diren pertsonak edo beren kirol-ibilbidean dopinagatik zigortuak izan direnak (nahiz eta zigor hori beteta izan) erabat debekatuta dute BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituan parte hartzea, izena emateko unean eta/edo probako egunean federatuta egon ala ez.

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituaren antolakuntzak egiaztatzen badu izena eman duen pertsonaren batek ez dituela betetzen aurreko paragrafoan adierazitako baldintzak, haren izen-ematea baliogabetu egingo du automatikoki, eta pertsona horrek ez du izen-ematearen dirua itzultzeko eskubiderik izango.

19. artikulua: GEO-LOKALIZAZIOA

Antolakuntzak GPS irrati-baliza bat emango die BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituko lasterketetan parte hartzen dutenei, haien geo-lokalizaziorako edo geo-posizionamendurako. Segurtasuneko gailu horren bidez korrikalari bakoitza unean berean zer kokapen zehatzetan dagoen jakin ahal izango du antolakuntzak.

Partaideek derrigorrez eta uneoro eraman behar dute GPS irrati-baliza hori gainean. Dortsala hartzerakoan, motxilan instalatuko zaie gailua. Baliza eramateari uko egiten badiote edo bazterrera uzten badute, lasterketatik kanporatuak izango dira berehala (ikus 25. artikulua: Zigorrak). Irrati-baliza hori soilik antolakuntzako kideek kendu ahal izango dute.

GPS-baliza elementu garestia da. Partaideen ardura da gailua zaintzea ematen zaion unetik helmugara iritsi arte edo proba utzi arte.

20. artikulua: ORDUTEGI-MUGAK

Lasterketako irteera 2019ko otsailaren 23an izango da, larunbata, 0:00etan (ostiraletik larunbaterako gauan).

Ibilbidea osatzeko gehienezko denbora 25 ordukoa izango da.

Beheko tauletan adierazitako ordutegiak mugako denborak dira; partaideak ibilian daramatzen denborak, hain zuzen. Ordutegi hauek, lasterketa baimendutako ordutegi-

mugen barnean amaitu ahal izateko kalkulatur daude, betiere kontuan hartuta egin daitezkeen geldialdiak (atsedena, otorduak...).

Areta	km 22	Larunbateko 04:30h (4h.30')
Orozko	km 35	Larunbateko 07:30h (7h.30')
Austigarmin	km 48	Larunbateko 11:00h (11h.00')
Murgia	km 64	Larunbateko 15:00h (15h.00')
Langraiz Oka	km 93	Larunbateko 21:00h (21h.00')
Vitoria/Gasteiz.....	km 108	Igandeko 01:00h (25h.00')

Partaideek proban jarraitu ahal izateko, ezarritako denbora-muga baino lehen atera behar du kontrol-postutik.

Ezarritako denbora-muga gainditu ondoren kontroletik pasatzen ez diren partaideak lasterketatik kanpo geratuko dira. Aurrera jarraitu nahi badu, soilik txipa desaktibatu eta geo-posizionamendurako baliza kendu ondoren egin ahal izango du, eta hortik aurrerako ibilbide guztia bere kasa eta ardurapean egin beharko du.

Antolakuntzak erabakitzen badu aurrez zehaztutako ordutegi horiek aldatzea, ordutegi-muga berrietara iritsi ezin duten partaideak lasterketatik kanpo geratuko dira.

21. artikulua: PROBA BERTAN BEHERA UZTEA ETA IRTEERA/HELMUGARA ITZULTZEA

Lesio edo istripuren batengatik ez bada, korrikalariak ez du proba bertan behera utzi behar kontrol- edo anoa-guneetatik kanpo. Partaideren batek proba gune horietatik kanpo uztea erabakitzen badu, hurbilen duen kontrol-guneraino joan beharko du edo lasterketa ixten datozen korrikalarietara itxaron beharko die, kontroleko txipa desaktibatu eta geo-posizionamenduko baliza ken diezaioten.

Proba utzi ondoren, partaideak dortsala gordeko du, antolakuntzak emandako zerbitzuak baliatu ahal izateko (autobusak, dutxak, helmugako anoa-gunea, etab.).

21.1. artikulua: Lasterketa derrigorrez bertan behera uztea

Antolakuntzak aldi baterako gelditzera edo lasterketa bertan behera uztera behar dezake partaidea honako kasu hauetan: nekea dela eta, korrikalariak gaitasun fisiko edo teknikoak nabarmen gutxituta baditu; derrigorrezko materiala ganean ez badarama, edo dagoen egoerak bere osasun fisikoa edo segurtasuna arriskuan jartzen baditu.

Mediku-taldearen laguntza eskatzen duten korrikalariak haien iritzi eta balorazioaren esku geratzen dira, eta, beraz, haien erabakiak onartu beharko dituzte.

Probetako osasun-zerbitzuek eta mediku ofizialek kasu guztietan erabaki hauek hartu ahal izango dituzte:

- Proban jarraitzeko gai ez diren korrikalariak lehiaketa uztera behartzea.
- Partaideren baten egoera fisikoa aintzat hartuta, ebakutzeko eta/edo ospitaleratzeko agintzea, egokien iruditzen zaien bitartekoaren bidez.

Ospitaleren batera ebakutzuz gero, partaideak berak hartu beharko du bere gain irteera/helmugara edo etxera itzultzeko ardura.

Istripu edo lesioagatik partaideak ezin badu oinez kontrol-guneren batera iritsi eta ebakuazioa beharrezkoa bada, korrikalariak antolakuntzarekin harremanetan jarri beharko du emandako telefonoen bidez (dortsalean inprimatuta daude), salbamendu-zerbitzua martxan jarri ahal izateko.

Estaldura-arazoak direla eta, zenbaki horiek ezin badira erabili edo egoera oso larria bada, 112 doaneko larrialdi-zenbakira deituko da.

Esan beharrik ez dago horrelako larrialdi-egoeretan gainerako partaideen elkartasuna eta errespetua funtsezkoak direla zauritutako pertsonak ahalik eta kalte eta min gutxien jasan dezan.

Larrialdi-egoeran egonik laguntza eskatzen duen partaide bati laguntzarik ematen ez dion korrikalaria lasterketatik kanporatuta geratuko da (ikusi 25. artikulua: Zigorrak).

21.2 artikulua: Helmugara itzultzea

Lasterketa utzi duten partaideak proba bakoitzaren irteera/helmugara nola itzuliko diren antolakuntzak eta kontrol bakoitzeko arduradunek erabakiko dute, irizpide hauek aintzat hartuta:

- Proba uzten duten partaideak honako kontrol-gune hauetatik eramango dira helmugara: Areta, Orozko, Murgia, Austigarmin eta Langraiz Oka.
- Aipatutakoez aparte, beste edozein kontrol- edo anoa-gunetan uzten duten partaideek, lesionatuta ez badaude behintzat, adierazitako puntu horietara joan beharko dute, beren kabuz eta ahalik eta lasterren.
- Noranahiko ibilgailuen bidez baino iritsi ezin daitekeen kontrol-guneetan, gune horretako arduradunak erabakiko noiz egin trasladoa, betiere ebakuazioa larria eta premia bizikoa ez bada.
- Eguraldi-baldintza txarrak direla-eta, proba osorik edo tarte batean bertan behera uztea arrazoizkoa bada, antolakuntzak geldirik dauden korrikalarien ebakuazioa ahalik eta lasterren egitea ziurtatuko du.
- Edozein arrazoi dela medio proba bertan behera uztea erabakitzen duten eta ebakuazio-puntuetara joaten ez diren edo kontrol-guneetako arduradunei horren berri ematen ez dieten partaideak antolakuntzaren kontroletik kanpo geratuko dira, eta, beraz, antolakuntza ez da haiei gerta dakiekeenaren erantzule izango.

22. artikulua: DORTSALAK

Dortsala pertsonalki emango zaio partaide bakoitzari, denbora neurtzeko sistemarekin batera. Horretarako, partaideak indarrean den nortasun-agiri ofizial argazkidun bat aurkeztu beharko du, baita korrikalariaren txartela ere.

Era berean, derrigorrezko materiala ere aurkeztu beharko du dortsala jasotzeko (ikusi 23. artikulua: Derrigorrezko materiala). Derrigorrezko materialaren kontrola gaintitu ondoren, partaide bakoitzak araudi hau betetzeko konpromisoa sinatuko du, eta antolakuntzak proba amaitu arte gordeko du sinatutako agiri hori.

Partaideek antolakuntzak emandako dortsala gorde beharko dute uneoro.

Dortsala gorputzaren aurrealdean eraman behar da (bular edo sabel aldean nahiz zangoetan) eta erraz ikusteko moduan, probak irauten duen denbora guztian. Dortsalak ezin dira kopiatu, tolestu, estali eta aldatu. Baldintza horiek ez betetzeak zigorrak ekar ditzake, besteak beste kanporatua izatea (ikusi 25. artikulua: Zigorrak).

Korrikalari bakoitzak goma elastiko bat eta kateorrazak jasoko ditu dortsala gerrian edo elastikoan ipintzeko.

Dortsala derrigorrezkoa da irteerako eremu itxira, anoa-guneetara, bizi-oinarrietara eta, oro har, soilik probako partaideak sar daitezkeen gunetara sartu ahal izateko.

Partaideari ez zaio dortsala inoiz kenduko.

23. artikulua: DERRIGORREZKO MATERIALA

Partaide bakoitzak material egokia eduki behar du bere segurtasuna bermatzeko. Proba guztian zehar honako material hau eraman beharko du derrigorrez:

- NAN/pasaportea
- Motxila
- 1 litroko gutxieneko edukiera izango duen ur-erreserba
- Edalontzia/bidoia (gutxieneko edukiera: 33 cl)
- Janari-erreserba (gutxienez 500 kcal)
- Jaka txanoarekin eta mintz iragazgaitzarekin eta transpiragarriarekin (ez dute balio soilik haizearengandik babesteko jakak)
- Galtza edo elastiko piratak (belaunetik beherakoak)
- 2 kopetako linterna, bakoitza dagokion ordezkoko energiarekin. Bi kopetako linternek energia-mota bera erabiltzen badute, nahikoa izango da ordezkoko bakar batekin.
- Atzealdeko argi gorria.
- Biziraupen-manta (gutxienez 1,20m x 2,10m)
- Txapela/bisera edo bandana
- Eskularruak
- Txilibitua
- Benda itsasgarri elastikoa edo taping (gutxienez 80 x 3 cm)
- Telefono mugikorra bateria kargatuta (jaso antolakuntzaren larrialdietako telefonoa kontaktuetan. Ez ezkutatu zenbakia. Telefonoa piztuta eduki)

Derrigorrezko elementu horietakoren bat ez eramateak zigorra izan dezake, partaidearen berehalako kanporatzea barne (ikusi 24. artikulua: Zigorrak).

Material guztiz gomendagarria:

- Hotzetik babesteko arropa gehigarria, eguraldi-iragarpenak txarrak badira
- Eguzkitako betaurrekoak
- Eguzkitako krema

Material gomendagarria:

- Bastoi teleskopikoak
- Iparrorratza
- Baselina

Bastoiak erabiliz gero, lasterketa osoan eraman beharko dira derrigorrez. Ez da bastoirik onartuko Bizi-oinarriko poltsan. Dena den, hautsiz gero, kontrol edo anoa-gune batean uzteko aukera izango da.

Partaideek ezingo dute materialik jaso edo itzuli, ezta aldatzeko arroparik ere, Bizi-oinarria ez den lekuetan (horretarako, antolakuntzak zerbitzu bat jarriko du poltsak jasotzeko).

Eguraldi-iragarpenen arabera, antolakuntzak derrigorrezko materialaren artean eska dezake hasiera batean guztiz gomendagarritzat edo gomendagarritzat jotako materiala. Era berean, aurreko ataletan jaso ez den beste materialen bat ere eska dezake; esaterako, kranpoiak. Antolakuntzak behar besteko aurrerapenarekin jakinaraziko die partaideei gorabehera horien berri.

24. artikulua: IRTEERAKO KONTROLA

Irteerako kontrola eta partaideentzat egokitutako eremu itxira sartu ahal izateko derrigorrezkoa den materialaren kontrola probari irteera eman baino ordubete lehenago hasiko da.

Behin eremu itxian daudela, partaideek ezingo dute hortik atera probari irteera eman arte.

Partaideek anoa likidoa eta komunak izango dituzte eremu itxi horretan.

Partaideei gomendatzen zaie behar beste denborarekin hurbiltzeko eremu itxira, pilaketarik ez gertatzeko.

25. artikulua: ZIGORRAK

Distantzia luzeko probak direnez, edozein gorabehera dela-eta, partaideen segurtasuna eta osotasuna lehenetsiko dira beste ezeren gainetik. Hori dela eta, ibilbidean zehar, lasterketaren antolatzaileek eta kontrolletako eta anoa-guneetako arduradunek eskumena izango dute araudia errespetarazteko, baita ondoren zehazten diren zigorrak ezartzeko ere:

ARAU-HAUSTEAK	ZIGORRA
Baimendu gabeko bide eta errepedeetatik igarotzea	1 Ordu
Antolakuntzako edo osasun-zerbitzuetako kideen aginduei jaramonik ez egitea	Berehalako kanporatzea
Derrigorrezkoa den segurtasuneko materiala ez izatea: (litro bateko gutxienerako ur-erreserba, jaka iragazgaitza, kopetako argiak, manta termikoa, telefono mugikorra)	Berehalako kanporatzea
Derrigorrezko materiala ez izatea: (pirata/galtzak/galtza elastiko luzeak, kopetako argi bakarra, ordezko energia, benda elastikoa, bisera/txapela/bandana, txilibitua, janari erreserba, edalontzia/bidoia)	2 Ordu
Derrigorrezko materialaren kontrolari uko egitea	Berehalako kanporatzea
Zaborra edo hondakinak lurrera botatzea	Berehalako kanporatzea
Janarien bilgarrietan dortsala markatuta ez izatea	Berehalako kanporatzea
Ingurumenaren aurkako arau-haustek	Berehalako kanporatzea
Pertsoneri (partaide/antolatzaile/ikusle) errespeturik ez agertzea	1 Ordu
Baimendu gabeko kanpoko laguntza jasotzea	2 Ordu
Baimendu gabeko kanpoko laguntza behin eta berriro jasotzea	Berehalako kanporatzea
Lasterketan izena eman gabeko pertsona batez edo animalia batez baimendutako eremuetatik (anoa-guneak) kanpo lagunduta joatea	Ordu 1/4
Irteerako kontrolletik ez igarotzea	Berehalako kanporatzea
Tranpak egitea (garraibide bat erabiltzea, dortsala beste korrikalari bati pasatzea, lasterbideak hartzea, etab.)	Berehalako kanporatzea
Dortsala galtzea	Berehalako kanporatzea
Dortsala ikusteko moduan ez eramatea	Ordu 1
Laguntza eskatzen duen partaide bati ez laguntzea	Berehalako kanporatzea

Beharrik gabe laguntza eskatzea	Berehalako kanporatzea
Dopin-kontrol bati uko egitea	Berehalako kanporatzea
GPS-baliza eramateari uko egitea edo bazterrera uztea	Berehalako kanporatzea
Kontrol-gunetik ordutegi-muga gaindituta ateratzea	Berehalako kanporatzea

Denbora-zigorak helmugako azken denborari gehituko zaizkio.

Artículo 26: BIDELAGUN

Horrela erabakitzen duten korrikalariak, posible izango dute laguntzailea edukitzea Bizi-Oinarririk helmugara, ibilbide zati hori elkarrekin burutzeko. Bidelaguna izango da hain zuzen ere.

Bidelagunak izen-emate paltzaforman izena eman beharko du lagunduko duen korrikalaria zein den adieraziz. Antolakuntzak ibilbidean zehar baimendutako laguntza bakarra izango da.

Partaide batek lasterketa uztea erabakitzen badu, Bidelagunak ere utzi behar izango du.

Bidelagunaren izen-emate prezioa 45 eurokoa izango da.

Bidelagunaren izena emateak araudi honen onartzea dakar, laguntzen duen korrikalariak dituen eskubide eta betebeharrak berberekin. Derrigorrezko materialari dagokionez, berdina izango da salbuespen birekin, atzeko argi gorria eta bigarren linterna ez dira beharrezkoak izango.

Lasterketa honek Bidelaguna laguntzaile bezala ulertzen du ez "erbi" bezala. Beraz, Bidelagunaren laguntza edukitzea erabakitzen duten korrikalariak ezi n izango dute lehenengo korrikalarientzako erreserbatutako saririk eskuratu ezta Zirkuituko sailkapen orokorretakorik.

27. artikulua: ERANTZUKIZUNAK

Antolakuntzak ez du, kontratatuko aseguruaren estalduraz gaindi, galera dela, hondatzea dela edo lapurreta dela, partaideei, laguntzaileei, zaleei nahiz materialari gertatutako kalteen ondorioz hauek jar ditzaketen erreklamazioen edo salaketen erantzukizunik bere gain hartuko.

BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituko lasterketetan izena eman duten partaideek ulertzen dute beren borondatez eta norberaren ardurapean parte hartzen dutela lehiaketan. Horregatik, salbuetsi, uko egin eta libratu egiten dituzte erakunde antolatzailea, laguntzaileak, babesleak eta beste korrikalariak partaideekiko eta haien oinordeekiko izan ditzaketen erantzukizun zibileko arduretatik, eta onartzen dute antolakuntzaren, laguntzaileen, babesleen eta beste partaideen aurkako salaketarik ez dutela jarriko.

Partaideek eskatzen zaizkien agiriak sinatu beharko dituzte araudi hau onartzen dutela idatziz berresteko.

28. artikulua: ALDAKETAK

Antolakuntzak eskumena du araudi hau edozein unetan aldatzeko, zuzentzeko edo hobetzeko. Partaideak, izen-ematea egiten duen heinean, araudi honekin ados dagoela adierazten du.

29. artikulua: DATUEN TRATAMENDUAREN ARDURA ETA XEDEA

Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betetze aldera, BASQUE ULTRA TRAIL SERIES Zirkuituan izena eman duten partaideei jakinarazten zaie izena emateko inprimakia betetzean emandako datu pertsonalak Trail 52 Sport Mendi Klubaren (aurrerantzean "antolatzailea") ardurapeko fitxategi batera igaroko direla.

Fitxategi hori helburu hauetarako erabiliko da: kirol-proba antolatzeko, partaideen izen-emateak egiteko, dortsalen banaketa kudeatzeko, korrikalarien aseguruak kudeatzeko, egindako markak hedabideetan argitaratzeko, partaideen argazkiak eta irudiak hedabideetan argitaratzeko, fakturaziorako eta, oro har, kirol-proba kudeatzeko eta antolatzeko beharrezkoak diren beste xede guztietarako.

Harremanetarako datuak eperik gabe gordeko dira eta probaren babesleei laga ahal izango zaizkie, antolatzaileek edo hirugarrenek antolatutako kirol-ekitaldiei buruzko informazioa edota antolatzaileek edo babesleek eskainitako produktuen eta zerbitzuen gaineko informazioa bidaltzeko. Bidalketa horiek ohiko bideetatik zein elektronikoetatik egin ahal izango dira eta, nolana dela ere, partaideek eskubidea izango dute datu pertsonalak ezeztatzeko, egoki iritziz gero.

29.1 artikulua: Partaideen eskubideak

Partaideren batek bere datu pertsonaletara sartu nahi badu, datu horiek zuzendu edo ezeztatu nahi baditu edo tratamendu horren aurka egin nahi badu, horretarako aukera izango du eskubidea NANaren fotokopiarekin batera helbide honetara bidalita: Trail 52 Sport Mendi Kluba. Iparragirre kalea, 66 - behea, 48012 - BILBO (BIZKAIA).

29.2 artikulua: Datuak lagatzea

Antolakuntzak aukera izango du probako partaideen izen-abizenak, jatorria, kategoria, dortsala, NAN eta lasterketan hartutako argazkiak eta irudiak, baita haien emaitzak ere, komunikabideetan argitaratzeko. Probetako parte-hartzaileen zerrenda eta adierazitako datuak publikoki kontsultatu ahal izango dira izena ematen duten une beretik. Horren ondorioz, proban erregistratzen diren heinean, partaideek berariaz eta erreserbarik gabe onspena ematen dute datu horiek antolatzaileak erabakitzen dituen hedabideetan argitaratzeko -baita Interneten ere-, datuen tratamenduaren aurka egiteko eskubidea alde batera utzi gabe.

Probetako sailkapenak eperik gabe mantenduko dira, markak egiaztatu ahal izateko, eta antolatzailearen web gunean kontsultatu ahal izango dira partaideek datu horiek ezeztatzeko duten eskubideari kalterik egin gabe.

Partaideak ordainketa kreditu-txartelarekin egiten badu, antolatzaileak erabakitako banku-entitateari lagako zaizkio datu pertsonalak, entitate horrek kirol-probako izen-ematearen ordainketa kudea dezan.

Antolatzaileak kirol-istripuetarako aseguru bat hitzartuko du izena ematen duten partaide guztientzat; horren ondorioz, partaideek, ekitaldian parte hartzen duten heinean, onspena emango dute beren identifikazio-datuak antolatzaileak erabakitako aseguru-entitateari lagatzeko, proban zehar inolako istripurik izanez gero, entitate horrek laguntza egokia bermatu ahal izan dezan.

Erabiltzaileak hirugarren pertsonen izena ematen badu, bai plataforman bai honen bidez

kudeaturiko kirol-probetan, aldeztatik pertsona horiek berariaz eta lege baldintza hauetan jasotakoaren arabera emandako baimena duela bermatuko du.

29.3 artikulua: Datuen kalitatea

Antolakuntza ez da, inolaz ere, emandako datuen legezatasun, egiazatasun eta zehaztasunaren erantzule izango. Partaideen ardura izango da datu horietan izandako edozein aldaketa antolakuntzari jakinaraztea. (*) ikurra duten eremuak betetzea nahitaezkoa da. Gainerako eremuak aukerakoak dira. Nahitaezko datuen bat ez ematea probako izen-ematea ez onartzea ekar dezake.

29.4 artikulua: Kirol-taldeek emandako datuak

Kirol-talde batek egiten duenean taldekideen izen-ematea, taldeak bermatu behar du taldekideak jakinaren gainean daudela eta haien onospena duela datu pertsonalak tratatzeko eta lagatzeko, pribatutasun-politika honetan ezarritako baldintzetan.

30. artikulua: IRUDI-ESKUBIDEAK

Partaideek baimena ematen diote antolakuntzari eta haren babesleei, lasterketaren testuinguruan egindako argazkiak edo hartutako irudiak askatasun osoz erabili eta argitaratzeko, epemugarik gabe.